

Intxaurrondo

Adin guztietako jendearentzat aukera

Intxaurrondo Zaharreko festak hemen dira. Astelehenean hasi ziren eta astebukaera honetan ere aukera ederra izango da hainbat ekitalditan parte hartzeko. Hauen berri izateko Miren Illarreta Jai Batzordeko kidearekin aritu gara solasean.

Unai Zubeldia

Miren Illarreta Jai Batzordeko kideak aipatu digunez, gogor ari dira lanean garai bateko jai giroa berreskuratu nahian. *"Intxaurrondo Zaharreko jaiak apurka-apurka garai batean zuten sona galduz joan dira, eta gainbehera hori ikusita, duela bi urte, Jai Batzordeko kideek jaiak lehen zuten indarra berreskuratzen saiatu ginen. Urtero-urtero egitaraua antzekoa izaten zen, eta, jaietara bul-tzada eman nahian, besteak beste, herri kirol desafioa berriro antolatzeari ekin genion. Azken bi urteotan berriro ere Intxaurrondo Zaharreko jaiak indartzen ari direla esan daiteke".*

Intxaurrondo Zaharreko festak eta Euskal Jaiak batera iritsi dira, eta Mirenek onartu digunez, horrek eragina izan dezake, beharbada Intxaurrondora jende gutxiago hurbilduko da eta. Hala ere, horri aurre egingo diotela uste du. Izan ere, bi jaiak uztartzeko aukera badago. *"Esaterako, hilaren 7an, goizez, Sagardo Eguna izango da Donostiako Parte Zaharrean, eta Intxaurrondon ere jai horrekin bat egingo dugu, hemen ere Sagardo Eguna izango baitugu. Gurea, baina, arratsaldean egingo da, eta beraz, osagarri izan daiteke. Egun horretan, gainera, giro ederra izaten da auzoan, eta ahal duten guztiei gerturatze-ko gonbita luzatuko nieke".*

Egitarauak bestelako erakargarritasunak ere badituela uste du Mirenek, eta ostiralean gazte asko elkartzea espero du. *"Ostiralean gazteentzako kontzertuak izango dira, eta, espero dugu, aurreko urteetan gertatu moduan, beste auzoetako jendea gerturatzea. Besteak beste, Ttak taldea etortzekoa da,*



Larunbatean, hilak 7, Sagardo Eguna egingo da auzoan.

eta urtero jende asko bildu ohi du".

Baina, Intxaurrondoko festetan, gazteek ezezik, adin guztietako jendeak lekua duela esan digu Mirenek. *"Saia-tzen gara jaiak adin guztietako jendearentzat egiten. Gazteentzat aipatutako kontzertuak izango ditugu ostiralean, baina bestelako ekitaldiak ere izango dira".* Mirenek larunba-

tean izango diren artisau azo-ka, Sagardo Eguna eta afari herrikoia aipatu ditu. Haurrek ere Intxaurrondo Zaharreko jaietan hamaika ekintzatan parte hartzeko modua izango dutela azaldu digu Mirenek: *"Marraski tailerra, haur kro-sa... izango dituzte, eta kultur etxeak beste bi emankizun antolatu ditu ostegun eta larunbaterako".*

Illarreta:
«Lehen festek zuten sona berreskuratu nahi dugu»

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Intxaurrondoko sukurtsalaren partetik ZORIONAK!
Lizardi bidea 2

Koska Enara



RENAULT

**Zure Zerbitzua Donostian
Ibilgailu konponketa
mekanikoak eta elektrikoak**



**Ibilgailu berri eta erabilien
erakusketa eta salmenta**

Pº Zubiaurre, 41 Intxaurrondo. 20015 DONOSTIA

Tel.: 943 28 35 11 Faxa: 943 28 61 07


e-mail: koska-enara @euskalnet.net www.euskalnet.net/koska-enara

Intxaurrondo

Egitaraua

Ostirala 6

- 16.00 Haur jolasak parkean
- 17.00 Futbolin txapelketa. Txiki tabernan
- 18.00 Globo gerra eta jokoak gaztetxean. Buruhandiak parkean
- 18.30 Txokolate jatea parkean
- 19.00 Pala txapelketaren finala estalitako frontoian. Mattin eta



Beloki trikitalariak eta Elizalde eta Txirriki txistulariak auzoan zehar ariko dira

- 21.30 Mozorro afaria eta txapelketa Intxaurrondo kalean
- 22.30 Itak, Hamaika bide eta Akune taldeen kontzertua
- 00.30 Zezensuzkoa Intxaurrondo kalean
- 01.30 Joko barregarriak

Larunbata 7

- 10.00 Diana
- 11.00 Artisau azoka (11.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.00etara)
- 12.00 Haur krosa parkean
- 16.00 Mus txapelketa Intxaurrondo kalean
- 18.00 Trufaldinoren Trufak kale antzezpera
- 18.30 Sagardo Egunaren hasiera. Buruhandiak eta erraldoiak Intxaurrondoko lekuan lekuko bertso trama Aitor Mike Ander



Bigira taldea

- eta Jon bertsolari gaztetxoekin
- 21.30 Herri afaria, Intxaurrondo kalean
- 23.00 Dantzaldia "Bigira" taldearekin
- 00.30 Zezensuzkoa
- 01.30 Joko barregarriak

Igandea 8

- 10.00 Diana
- 18.00 Patata tortilla lehiaketa, toka eta bote txapelketa. Intxaurdantza taldearen emanaldia eta sardin jatea

Larunbata 14

- 11.00 Meza
- 12.00 Haur danborrada
- 13.30 San Rafaelgo itsuentzako bazkaria
- 14.00 Aiton-amonentzako bazkaria
- 18.00 Herri kirolak. Haur jolasak. Marmitako txapelketa auzoko elkarteen artean
- 20.00 Poteoa auzoan
- 21.30 Elkarteek egindako Marmitako afaria

BIAK



ELEKTRO MEKANIKA
Kotxe konponketa

Zurriola Pasealekua, 24
Tel.. 943 27 56 60
20002 DONOSTIA


OLIYOS

GAZERNA * JABETXEA

Erregezainen kalea 4 • Tel.: 943 21 49 89



Arriberri, 7 ALIZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxea eta Aliza POKiralegiaren ondoan eta autobus bazatuz, hobe! Autobus linea: 13, 16, 21 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA